

KONSTANTINOPLA: Bayazeto'n mezkitia.

# EDEŔ-EDEŔENARI

Zuregana gatoz
¡O Ama maitia!
ematera gogoz
biotz ta bizia.

Zelaiko loriak
guk ditugu bildu,
ta zure ondiak
oyekin apaindu.
Zure maitasuna
guk nai dogu lortu
¡ain gurea danez,
aŕen ez ukatu!

Ain zera edeŕa
Zu Neskutz garbia,
Jaungoiko ber-bera
da zure maitia.
Eman eiguzu, ba,
aŕen, donokia,
¡ikusteko beti
Zure arpegia!

Zuregana gatoz
¡O Ama maitia!
ematera gogoz
biotz ta bizia.

**Tene.**